

BERBAREKIKO ANTROPOLOGIA: 1987. URTEKO MASKARADA ZUBEROTARRETAN MUSKILDI HERRIKO XORROTXEK GOIZEKO BARRIKADETAN KANTATURIKO KOPLAK

Singing verses in Mascarada performances from Pays de Soule

Kepa Fernández de Larrinoa (*)

RESUMEN

Este artículo analiza las coplas que cantan las dos personas que juegan el papel de afiladores en las Mascaradas suletinas. Recoge las coplas que cantaron los afiladores de la Mascarada de Muskildi en 1987 y las presenta siguiendo un punto de vista filológico, al tiempo que explica cómo las coplas de las Mascaradas forman parte de un entramado cultural cuyos referentes son socio locales.

Palabras clave: antropología de la palabra, teatro de carnaval, coplas de salutación, Maskaradas de Zuberoa.

ABSTRACT

This article comments on the verses sung in Zuberoa during Carnival performance by two characters known as knife sharpeners. It focuses on literate issues and understands that Carnival verses are part of a cultural practice with social consequences.

Key words: carnival folk performance, oral literature.

LABURPENA

Maskaradetan plazaratzen diren hitzak direla-eta, lau antzezesparru bereizten dira: koplak, sermoiak, kantuak eta grafitiak. Muskildi herriko zorrotzen koplak bilduta daude txosten honetan. Ikuspegi filologikoari begiratzen zaio, espresara literarioen alde formalak, irudiak eta metaforak aipatzen direlarik.

Giltz hitzak: Zuberoa, Maskaradak, txorrotxen koplak

(1) Universidad Pública de Navarra.

SARRERA

1990. urteen hamarkadan Zuberoako antzerki herrikoa miatzeari ekin nion. Maskaradak eta Pastoralak arakatu nituen bereziki, ikerketa bibliografikoan zein etnografikoan ihardun nuelarik. Nire ikerlanaren emaitzak izkribuz jakinarazi ditut.¹ Zuberoako antzerki herrikoiaaren analisatzean, antropologia sozialean finkaturiko folk-sinbolikaren barruan ibili naiz, eta, besteak beste, honako esamoldeak neure egin ditut: metafora sozialaren antropologia, drama antropologia, antropologi-teatrua edo antzezkizunaren antropologia, ospakizunaren antropologiak eta halako beste zenbait. Beraz, folk arte estzenikoaren ikastarloan kokatu dut Pastoralen eta Maskaraden miaketa.

Maskaradetako zorrotzek kantatzen dituen koplak gorabehera batzuren berri ematen du oraingo artikulua. Partikularzki, 1987. urtean Muskildi herriak goizeko barrikadetan kantaturikoen berri azaltzen du. Ikuspegi filologikoari hurbiltzen natzaio, espresaera literarioen alde formalak, irudiak eta metafora eraginkorrenak behatzen ditudalarik. Hemen argitaratutako testuak, bateko, jatorrizko *iiska* kantatuan edo idatzian transkribatu, besteko, zuberera batura iragan, eta ondoren, testuen praktika soziokulturalaren gora-beherak aipatzen ditut.

Maskaradetan plazaratzen diren hitzak direla-eta, lau antzezesparru bereizten dira: koplak, sermoiak, kantuak eta grafitiak. Arestian erran bezala, Muskildi herriko zorrotzen koplak bilduta daude txosten honetan. Halaber, 1999.eko urtean *Euskera* aldizkarian agertu nuen analisi orokorrigo baten barruan kokatu behar dira oraingo adierazpenak.

Muskildiko Maskarada 1987. urtean ospatu zen, Zuberoako hamar herritan baino gehiagotan antzezturik izan zela. 1988. urtean inongo herri zuberotarrak ez zuen Maskaradarik plantatu, eta ez ziren Maskaradak Zuberoan ikusi. Hegoaldean, aldiz, bai. 1988. urtean Hegoaldeko herri batzuk -batez ere bizkaitarrek- muskildiarrek gonbidatu zituzten beren herrietara etortzeko galdetuz, Maskarada bertan emateko. Herri haien artean Larrabetzu, Markina, Mundaka, Galdakao eta Usurbil zeuden. Herri hauetan, bestalde, normaleko kopla klasikoak kantatzeaz gain, zenbait berri ere idatzi zituzten bapatekoan.

Herriz herri taxutu ditut koplak, artikuluan ordenu honetara emanik: I Pagola, II Garindaiñe, III Sohüta, IV Atharratze, V Barkoxe, VI Maule, VII Altzürükü, VIII Altzai, IX Larraiñe, X Usurbil, eta XI Muskildi.

(1) Txosten honen bukaeran aipatzen ditut emaitzen erreferentzia bibliografikoak.

Muskildiko Maskaradan Dominika Agergaraik eta Eñaut Uhaltek hartu zuten zorrotz-kargua. Hala ere, Eñautek ezin izan zuen igande guztietan aritu, eta haren tokia Alain Mugordoyk betetzen zuen.

Bukatzeko, nire esker handiak Muskildiko bizilagun eta *maskaradakai* guztie eman nahi dizkiet, eta partikularzki toxten honi dagokiola, Dominika Agergarairi eta Alain Mugordoyri. Eraberean, esker onak Txomin Peillen irakasle eta idazleari, idazlan honi, irakur-eta, eginiko aipuegatik.

I PAGOLA HERRIAN KANTATURIKO KOPLAK

*Agur Phagola (1) eta phagolar maitiak (2)
Zienganat heltü (3) dira Muskildiarrek
Goraintzi dereizie (4) herri aizua (5)
Ahantzi gabe ere zentü dien (6) lagunak*

*Urthia jun zeiküla (7) Battitta (8) maitia (9)
Guretako izan da bethi adixkidia (10)
Maite beitzian hunek (11) eüskaldün jeia (12)
eskentzen (13) diogün egün maskarada*

*Juan hiz (14) gogun hian maskada (15) egin gabe
Phastoalian (16) handizki hartü hian (17) pharte (18)
Hire medioz beiti (19) herrik (20) egin bide
Gük erraiten deiagü (21) bestaldi bat arte*

(1) **Phagola**, Pagola. Zuberoako euskalkian hitz askotan 'h' bat ahozkatzen da kontsonante baten ondoren. Euskal Grafia Batuan erabaki da halako 'h'ik ez dela idatzi behar.

(2) **maitiak**, maiteak. Zuberoan ere, Euskal Herriko alderdi anitzetan bezalaxe, berba baten amaierako '-ea' '-ia' bezalakutzen da ahozko hizkuntzan.

(3) **zienganat heltü**, züengana heltü, zuengana heldu. Zuberoako euskalkian '-tu' aditzaren marka edo aditzegilea ez da '-du' itxuraldatzen kontsonante baten ondoren. Beste alde batetik, '-du' edo '-tu- direlakoak '-dü' eta '-tü' bihurtzen dira zuberoraz.

(4) **dereizie**, dereizüe, deizüe, dizue. 'Dereizüe' aditz forma zaharkitua dugu, normaleko elkarrizketan 'deizüe' erraten delarik.

(5) **aizuak**, ai^zoak. Zuberoan ere berba baten amaierako '-oa' '-ua' egiten da, ahozkotasanaren legeari jarraituz. Muskildi eta Pagola herri auzoak dira: elkarren ondokoak, hots.

(6) **zentü dien lagünak**, zendu diren lagunak. Euskalki askotan bi bokalen arteko 'r' a lerrotzen da ezpainetatik, eta ez da ahoratzen. Zuberoan berdinberdin jazotzen da. Beste alde batetik, erratekoa da esaldi hau irudi poetiko zubiduna dela, zeren datorren koplaren hasierako edukari so egiten dion.

(7) **Urthia jun zeiküla**, Urtea joan zaigula.

(8) **Battitta Pagolako gazte bat da**, Maskaradak ematean orduantsu hila zena: urte bat lehenago hain zuzen ere. Gazte honen zoritxarreko heriotzak eta herriko arazo kulturaletan bultzatzaile bezala zuen pisu handiak inguratzen duten koplak hauen esangura. 1987. urtean plantatzen da Muskildiko Maskarada eta 1983. urtean Pagolan Pastoral bat antzestu zen. Gazte honek bete-betean lanegin zuen gertakari kultural hura aitzinatzeke, eta baita ere, Maskarada bat nahi zuen Pagolan antolatuz. Maleruski bizitzak ez zion halakorik ikusteko aukerarik eskeini. Bezperatik muskildiarrek Pagolara telefonatu zuten beren asmoa komunikatzeko: partitzean, Battittaren omenaldi gisa, «Agur Jaunak» txirulaz jo ondoren, bi zorrotzek hiru koplak kantatuko zituzten, arestixean agertzen zaizkigunak.

(9) **maitia**, maitea. Hitz hau erretorikoa dela esan dezakegu, 'klitxe' bat: koplagingintza aisatzen duena, hots.

(10) **bethi adixkidia**, beti adiskidea. 'Adixkidia' idatzita dago koadernoan, eta 'adixkidia' kantatu zuen. Eguneroko hizkeran ere 'x' ahozkeraz baliatuz erraten da Zuberoan 'adixkidia' berba.

(11) **Maite beitzian hunek**, Maite beitzian hunek, Maite baitzuen (bait zuen) honek, gustatzen zitzaion eta.

(12) **eüskaldün jeia**, euskal jaia, euskal besta. Koplak honetan, aurreneko bi lerroen '-ia' ganbio fonologikoek, hirugarren lerro honetako 'jeia' rekin indartzen dute koplaren errima.

(13) **eskentzen diogün**, 'eskeintzen' generrake, edo hobeki erranik, idatziko genuke, Euskal Grafia Batuan. Era berean, zubererako aditzaren legeei jarrai, 'deiogün' behar luke.

(14) **Juan hiz**, joan haiz. Zuberoan 'jun' esaten da. Doinuarekin komunztadura hobea lortzeagatik dio koplaren egileak kasu honetan 'juan' forma arrotza.

(15) **gogun hian maskada**, gogoan hian maskarada. Muskildi eta Pagola Pettarrean daude: hau da, Beherria da, Basabürüaren aldean; Goiherriaren aldean,

alegia. Basabürüan normalki 'hüan', 'züan', 'goguan' eta diote. Pettarrean, aldiz, 'hün', 'züin', 'gogun' eta holako. Lerroaldi honetan, beraz, eguneroko hizkerarekiko aldaera bat ekarri du aditzean eta ez, ordea, izenlagunean. Halaber, 'maskada' dio. Silaben ganbio-joko hauek doinuari hobeto segitzekotan daude eginda.

(16) **Phastoalian**, Pastorealean. Jean Louis Davanti jarraituz,² 'Pastoral' hitza zortzi modutara agertzen ohi da idatzita (eta ahoratuta): pastoral, pastural, pastoal, pastual, phastoal, phastual, phastoral, phastural. Hitzaren artistak, jakinaren gainean egonda, bata ala bestea darabil, manipulatzeko du, bertsoen eta koplaren beharrak gainditzeko.

(17) **handizki hartü hian**, handizki hartü hüan.

(18) **pharte**, eskü, parte, esku.

(19) **beitü**, baitü, bait dü.

(20) **herrik** herriak

(21) **erraiten deiagü**, erraiten diagu, esaten diagu. 'Deiagü' guk hiri zerbait, hau da, nor-nori-nork forma da Zuberoan. 'Deiagü', ordea, nor-nork dugu, hau da, guk norbait edo zerbait.

II GARINDAIÑE HERRIAN

*Agur eta goraintzi Battitta (1) maitia
Zük eman dereiküzü (2) euskal jeien gusta
Orai bethik (3) gira (4) etxetik eskapa
kunprenitü badüzü da zure ogena (5)*

*Agur eta goraintzi ogi egilia (6)
Guk (7) zinez maite dügü egiten düzüina (8)
Bena egün hobe günüke ardua
Plazer balin (9) badüzü erran gabia (10)*

(1) Battitta hau Battitta Urruty da: Pastoralen errejentata, alegia. Haren etxearen aurreko barrikadan kantatu zuten Muskildiko zorrotzek koplak hau. Ikusten denez, lehenengo lerroaldi hau oso erretorikoa da, koplak askotan agertzen den berba-formula da eta.

(2) *Catechima Laburra eta Jesus-Christ Goure Gincó Jaunaren Eçagutzia, Salvatu Içateko*, Euskaltzaindia, 1983:17.

(2) **dereiküzü**, deiküzü, diguzu. 'Dereiküzü' aditzaren forma zaharkitua da. Eguneroko hizkeran deiküzü esaten da. bigarren leerroaldi honetan, koplaren berezitasuna astintzen da: hau da, Battitta Urruty, muskildiarrek, eta Maskarada egitearen funtsa zertan elkartzen diren jakinarazi da. Alde batetik, Urruty jaunak 1985. urteko Pastoral bat gidatu zuen Muskildin. Beste alde batetik, aspalditik ez zuten Muskildin egiten ez Pastoralik ez Maskaradarik: ehun urte baino haboro iraganik ziren haiek ekarri gabe, beraz 'zale-tasuna' (gusta) hartu zuten Pastoral plantatzean eta oraingo Maskaradarekin halaxe delako froga dakarte. Hirugarrez, besta da eta etxeari begira dagoen munduari bazter eginik, plazako giroari datxekie. Kopla honetan etxearen eta plazaren unibertso sinbolikoek denotatzen dituzten ezaugarri isilekin jokutzen da.

(3) **bethik**, betitik, betidanik.

(4) **gira**, gara. Zuberoan: niz, hiz, da, zira, gira, zidee edo ziree, dira.

(5) **ogena**, errua.

(6) **ogi egilia**, ogi egilea, okina. Koplakariaren koadernoan «ogi egilia»ren alboan «muskildiar ohia» agertzen da. Barrikadan. ordea, «ogi egilia» kantatu zuen. Zortzigarren oharrean, (8)ean, dakart ezbai edo aukera honen zioa.

(7) **Guk**. 'Gük' behar luke zubereraz. Dударik gabe, idazleari ahantzi zaio halako "" ezartea bere idazkian.

(8) **maite dügü egiten düzüna**, gustatzen zaigu produzitzen duzuna. Lerroaldi honetan dugu koplaren erranahia: kantatzen zaion etxea okindegia da, hau da, ogia egiten dute. Muskildiko seme bat etxe honetako alaba batekin dago ezkondu eta janbide honi atxeki dio. Era berean, Muskildin egunero jaten den ogia furgoneta batek dakar herrira, ogia etxez etxe banatzen duenak. Ogi hau Garindaiñeko etxe honetako denez, hortik dator «Gük zinez maite dügü egiten düzüna» errakuna. Hala ere, beste eranskin bat ekarri behar dugu, zeren eta koplakariaren koadernoan «egiten düzüna»ren ondoan «**zien batzarria**», züen harrera ona», agertzen baita. Beraz, hautatze bat dakar koplaren egileak. «Zien batzarria» delakoa askozaz molde errotorikoagoa, klasikoagoa izanik, aurrena jendaurretatzea deliberatu zuen kantariak.

(8') **Bena egün hobe günüke ardua**, baina gaur hobe genuke ardoa. Ardoa -eta alkohola, oro har- da kople-tan agertu ohi den irudi bat. De facto, ardoa edaten da, gehienbat, barrikadetako gizarte-tertulietan.

(9) **balin**, baldin.

(10) **erran gabia**, erran gabea, noski, prefosta, bistan da.

III SOHUTA HERRIAN

Txorrotx lagiina etxen (1) eta ni heben (2)

Bena bardin (3) zerbait deiziet erranen (4)

Muskildiarrek deizie (5) goraintzi igorten

Eta mitila (6) aldiz bertan (7) dela jinen (8)

(1) **etxen**, etxean. «Etxen» inesibo azkartzailea da zubereraz: esate baterako, gu (geure) etxen gaude; eta gu (zure) etxean gaude.

(2) **heben**, hemen.

(3) **Bena bardin**, baina akaso, agian. Zuberoan, Bizkaian bezala, «bardin», ez «berdin», esaten da.

(4) **deiziet erranen**, deizüet erranen, dizuet esango.

(5) **deizie**, deizüee, dizuete.

(6) **mitila**, mütilla, morroia. Maskaradetako zorrotzak bi dira: «nausia», hots, nagusia; eta «mitila», haren laguntzailea baita. Ondoan dator kopla honen zergatia edo erreferentzia handiena.

(7) **bertan**, arrunt, laster, segituan.

(8) **dela jinen**, etorriko dela. Azkeneko lerroaldian adierazten da gertakizunaren berezitasuna. Kopla honen testuingurua biziki bitxia da, zeren Sohutako emanaldian, lehenbiziko barrikadan jaustean, zorrotz «nagusia» besterik ez bait zen ageri, «mitila» ez zen iritsia, laborari edo baserritarra izanik, goizeko lanak ez baitzuten ordurako amaituta. Zorrotzen tenorea heldu eta, bat besterik ez egotean, hau berau ibiltzen hasi eta goiko kopla irten zitzaion batera pentsatu gabe, bat batean. Eta ikusentzuleen irri-algarak sortarazi zituen. Gertakaria oso polita izan zela iruditzen zitzaion Dominika Agergarairi, eta bere kailerrean izkribatu zuen.

IV ATHARRATZE HERRIAN

Atharratzen (1) badela jente hun (2) franko

Barrikadak beitia bethi aizo, aizo (3)

Ez dügü paketik (4) edan oraino

Nahi günüke txeste (5) heben (6) 'bera mintzo' (7)

Txapeldünak (7') ginela erran die adeja (8)

Guri üdüri zaikü (9) hoi (10) ez dela hala

Atharratze eta Muskildi herria

Jarraikitzen beitie (11) biek ber bidia (12)

Barrikada prunki (13) gure mozkorrazteko (14)

Ardu xuri (15) gorri edateko franko

Muskildiarrak ez dira hola aseko (16)

Bena (17) mentüraz (18) sari (19) oro giateke (20) lo

(1) **Atharratzen**, Atarratzen.

(2) **Jente hun**, jente hon, jende on.

(3) **Barrikadak beitia bethi aizo aizo**, Barrikadak baitira (bait dira) beti aizo aizo. Atarratzen beti barridada anitz ezarten dira, bertan kartiel asko egonik, jende asko bizi da eta. Hala dela arrajakinarazi nahi du koplaren egileak.

(4) **Ez dügü paketik edan**, ez dugu asko, pila, edan.

(5) (6) **Nahi günüke txeste heben**, gura genuke hemen dastatu.

(7) **'bera mintzo'**, 'bera mintzo' Atarratzen egiten den ardo baten izena da

(7') (8) **Txapeldünak ginela erran die adeja**, Txapeldunak ginela esan dute arestion. Lehen erran bezala, Atarratzen barrikada eli bat ipintzen da Maskaradak datozenean. Barrikadetan herritar dantzari errezi-bitzaile batzuk dantza egiten dute dantzari bisitarien aurretik. Muskildiko Maskaradan halako dantzariez gain zorrotzak ere errezi-bitu zituzten muskildiarrak. Halakoxea agintzean, joko polit bat garatu zen, zeren zorrotz errezi-bitzaileek koplak berriak kantatzen baitzituzten barrikada orotan, muskildiarrak nola edo hala erantzun behar zituztenak. Begi aurrean dugun koplak hau beste bati erantzuna da: hau da, zorrotz errezi-bitzaileek esana zuten muskildiarrak «txapeldunak» zirela, Maskaradaz gain, 1985. urtean Pastoralak emanik zuten eta.

(9) **Guri üdüri zaikü**, Guri irudi zaigu.

(10) **hoi**, hori. Lehen aipatu lez, bokalen arteko 'r'ak lerratzen dira hizkera arruntan ezpainetatik.

(11) **beitie**, baitüe, baitute (bait dute).

(12) **ber bidia**, ber bidea, bide berbera.

(13) **prunki**, elkarren segidan, eli bat, asko.

(14) **mozkorrazteko**, mozkor arazteko.

(15) **Ardu xuri**, ardo zuri.

(16) **aseko**, asetuko.

(17) **Bena**, baina.

(18) **mentüraz**, beharbada.

(19) **sari**, sarri. Zubereraz dauden izkribuetan anbibalentzia handia ikusten da 'rr' daramaten hitzak idazteko: batzuk 'r' bakuna izkribatu, eta beste zenbaitek 'rr' idazten dute, zeren eguneroko ahozkeran ere haien arteko ñabardura oso klar ez baitira Zuberoan. Beste alde batetik, 'sarri' zubereraz 'gero' nahi du esan: sarri arte/gero arte. Hegoaldeko euskalkietako 'sarritan' edo 'maizetan' adierazteko 'üsü' erraten da. 'Sarri' hitzaren etsenplutzat harturik, ohargarri da honako kasua jazotzen dela hitzen ahozkeran: hots, 'r' 0 eta 'rr' 'r'; hau da, saria saia eta sarri sari. Gisa bereko berbetan '-r' eta 'rr' arteko bereizketa dela medio elearen esangura markatzen diren berbetan, alegia- bide berdina segitzen ari da.

(20) **giateke**, girateke, izanen gira. Zuberoan 'izan' eta 'ükhen' (ukan) aditzen geroaldia sintetikoa da: nizateke, hizateke, dateke, girateke, zirateke, dirateke; düket, hüket, düke, dükegü, dükezü, dükezüe, dükee. Kasu honetan 'giateke' dio koplaren egileak zeren, 'gira' bi silaba izatean, dorpeago sartuko zituen doinuaren gisara.

V BARKOXE HERRIAN

Agur Bernardette ta txorrotx (1) ohia

Muskildiarrak deizie (2) beren gorantzia

Erremestiatzen (3) dügü urtxantxen jabia (4)

Ber denboran (5) handi beiti (6) batzarria (7)

Agur eta goraintzi Jean Febien lagüna (8)

Muskildiarrak deie (9) beren gorantzia

Zinez maite beiti (10) eüskaldün jeia

Jarraiki ezak (11) bethi haitati bidia (12)

Agur eta goraintzi Luxia maitia (13)

Etxe hunek uhuratü bethi herria (14)

Germain zena (15) orotan zen estimatia (16)

Maskada (17) izan dadin haren omenaldia

Agur eta goraintzi pilotari handia (18)

Bai eta ber denboran ostaler haitia (19)

Gazte izanik ere 'Pepe' batheiatia (20)

Zahartü ondun (21) date (22) hori egia

Essai bat nian markatü (23)

Arbitrak zian (24) errefüsatü

Nik ordin (25) mihia tiatü (26)

Ta muthurreko (27) bat eskentü

(1) **Txorrotx ohia**, zorrotz ohia, lehen izandako zorrotzari. 'Xorrox' izkribamoldea ere agertzen da beste kaiurretan. Muskildiko zorrotzek Barkoxeko senar-emazte bi goraiatu nahi dituzte, haien etxearen aurreko barridada atxakiaren bitartez. Senarra Barkoxeko lehenengo Maskarada batean 'zorrotzaren kargua' egin zuen-eta, aukera ezin aproposagoa hartzen du egileak lehen bertsetarako.

(2) **deizie**, deizüee, dizuete.

(3) **Erremestiatzen dügü**, eskertzen dugu. 'Erremestiatü' aditza maiz azaltzen da zorrotzen kopletan, eta erramolde erretorikotzat jo dezakegu.

(4) **urtxantxen jabria**, urtxantxen jabea, urtxintxen jabea, katagorrien jabea. Maskaradetako zorrotzek beren txapelen gainean urtxintxa bana ohi daramate, eta muskildiarrek dauzkatenak Barkoxeko zorrotz honengandik maileguz hartuta jantzen dituzte.

(5) **Ber denboran**. denbora berean, era berean, halaber.

(6) **handi baitü**, handi baitü, handi bait dü.

(7) **batzarria**, batzarrea, ongi errezibitzea. 'Batzarre' hitzak, zubereraz, 'harrera ona', 'norbait ondo errezibitzea' gura du esan. Errezibitzearen irudi hau oso errepikorra da zorrotzen kopletan.

(8) **Jean Febien lagüna**. Jean Febien Barkoxeko gazte bat da, euskal kultura herrikoiaren alde lanegintzen duena, eta berari kantatzen diote koplak.

(9) **Muskildiarrek deie**, Muskildiarrek deie, Muskildiarrek hiri ditek.

(10) **beitük**, baitük, bait dük.

(11) **Jarraiki ezak**, Jarraiki ezak. Zubererazko hizkeran arruntan 'jarraiki' behar luke. Bertset honetan, aldiz, nonbaitetik behar zuen egileak silaba bat gehiago elki, doinuan txukun ibiltzeko.

(12) **bethi haitatü bidia**, beti haütatü bidea, beti aukeraturiko bidea.

(13) **Agur eta goraintzi Luxia maitia**, Agur eta goraintzi Luxia maitea. 'Agur eta goraintzi' zorrotzen kopletak hasiera erretorikoa, klasikoa da, salutantza baita. Koplak honetan, arestian bezala, senar-emazte bi aipatzen dira, senarraren lana, herriko euskal kultur mailan egindakoa, goratzeko.

(14) **Etxe hunek uhuratü bethi herria**, etxe honek uhuratü beti herria, etxe honek ohoratu (ondratu) beti

herria. Herriko euskal antzekizun kulturei atxekitzea eta berak aintzina eramatea herriaren ondrea edo ohorea lantzearekin eta hedatzearekin parekatzen da.

(15) **Germain zena**. Germain Lechardoy, Luxiaren senarra, joan baitzitaion.

(16) **estimatia**, estimatüa. Zubereraz, berba-amaierako '-üa' 'ia' soinualdatzen dira.

(17) **Maskada**, Maskarada.

(18) **pilotari handia**. Zubereraz 'pilotakaria' erraten ohi da, '-kari' atzizkiak baliatuz.

(19) **ostaler haitia**, ostaler haitüa, ostalari bizkorra.

(20) **'Pepe' batheiatia**, 'Pepe' bateiatüa, 'Pepe' bataiatua. 'Pepe' berbak 'aitañi' edo 'aitatxi' gura du esan frantsesez, eta halako izengoitia zuen Germainek oso gaztetandik.

(21) **Zahartü ondun**, Zahartü ondoan.

(22) **date**, dateke, izanen da.

(23) **nian markatü**, nüan markatu, nuen markatu. Koplak hau ez da inongo zorrotzen koplarik, baizik eta Pastoralaren bertseta. Muskildiko kautereen jokorako, berauek eskatu zioten Dominikari zerbait idatz zezan Barkoxtarren lepo irri egiteko, barregaiak hauxe izanik: aspaldi honetan rugby sartu da barkoxtarren gazteen lehentasunean, dantza, Maskaradak eta Pastoralak alboan utzita; era berean, Barkoxeko herriak beti 'Etxaun' Pastoralak aurkeztu du azken urteotan, Pastoralik aurkeztekotan. Egoera hau buruan ukanik, muskildiarrek erran nahi izan diete barkoxtarrei, Pastoral bat behar dutela antolatu, Pastoral 'berri' bat, sujet bezala 'rugby' bera izan behar duena. Arratsaldeko jokoan, kautere nagusiaren 'peredikian' edo sermoian, behar bezalako sarrera eginda gero, eta Pastoralaren bertseten doinua erabiliz, goiko bertsoa, Dominikak izkribatua, bota zuten. Jakin dugunez, barkoxtarrek ez zuten oso gustoko bertsoa izan, eta txistuak bota zituzten.

(24) **zian**, züan, zuen.

(25) **ordin**, ordüan.

(26) **tiatü**, tiratü.

(27) **Ta muthurreko**, Eta muturreko.

VI MAULE HERRIAN

Agur eta goraintzi Xiberoko Botza (1)
Irrati hau ümen (2) da herriaren bihotza
Güne hanitxetan (3) zinez behatia (4)
Erosi beharko zaio 'Mendi Lilia' (5)

Agur irrati huntako lan egiliak (7)
Marcel eta Jean Jacques bi adixkidiak (8)
Algarrekilan nula (9) antolatzen lana?
Bata 'gorri' izanik ta bestia 'beltza' (10)

Agur Muskildiko errejent (11) ohia
Ber denboran meiako sekretaria (12)
Orai zira (13) gradoz zinez goratia (14)
Herri huntan beitzira bigarren gizona (15)

(1) (5) **Xiberoko Botza, Mendi Lilia.** Xiberoko Botza eta Mendi Lilia Maulen dauden bi irrati dira, politika linguistiko eta kultural arras ezberdinak dararatzatenak. Muskildiko Maskarada Xiberoko Botzak ezarritako barrikadan ari da.

(2) **ümen,** omen

(3) **Güne hanitxetan,** alderdi anitzetan, toki askotan.

(4) **zinez behatia,** zinez behatua, erabat entzuna.

(5) **lilia,** lorea.

(7) **irrati huntako lan egiliak,** irrati honetako lan egileak. Koplaren egileak dioenez, 'langile' erraten da, baina beste silaba bat behar zuen leerroaldia doinura sartzeko.

(8) **bi adixkidiak,** bi adiskideak. Kopla honetan oposizio batetik abiatzen da, lehengoan bezala (bi irratiaren arteko oposaketatik, hain zuzen ere). Oraingoko oposaketa 'irratiaren barneko adiskidantza' eta 'Maskaradaren barneko tirabiran oinarritzen da.

(9) **nula,** nola, zelan.

(10) **Bata 'gorri' izanik ta bestia 'beltza',** bata 'gorri' izanik eta bestea 'beltza'. Maskaradetan bi talde nagusi agertzen dira elkarren lehian: gorriak eta beltzak. Xiberoko Botzean bi berri-emale daude, Marcel Bedaxagar eta Jean Jacques Agergarai. Aurrena urdiñarbetarra da, Urdiñarbeko Maskaradetan dantzari ari izan dena, hau da, gorriekin. Bigarrena, muskildiarra da, eta Muskildiko Maskaradan 'buhame jauna' da, hau da, beltzekin dihardu. Beraz, Maskaradetan banandurik, eta lanean elkarturik. Halakorik nola daitekeen galdetzen du koplalariak.

(11) **errejent ohia,** maisu ohia.

(12) **meiako sekretaria,** meriako sekretaria, herriko etxeko sekretarioa, udaletxeko idazkaria. Euskeraz 'herriko etxea' esaten da hegoaldeko 'udaletxea' izendatzeko. Hizkera arruntean, ordea, molde frantsesa hartzen da maileguz: meria, meriako, meriatik ... 'Sekretaria' ere frantsesetik hartu du, eta beregisako euskalduntze bat egin du errima lortzeko, zeren 'secrétaire'-tik normalki 'sekreterra' dator, eta ez 'sekretarea', eta ondorioz, 'sekretaria'.

(13) **Orai zira,** orain zara.

(14) **goratia,** goratua, altxatua.

(15) **Herri huntan beitzira bigarren gizona,** Herri honetan baitzira (bait zira) bigarren gizona. Kopla honetan paradoxa bat astindu nahi da. Ikus dezagun zertan datzan delako paradoxa. Zorrotzak Maule herriko udaletxearen aurrean, hots, herriko mandatarien aintzinean daude. Zinegotsien artean, alkate-ordea dago, nor Muskildin aspaldian egon baitzen herriko maisu. Garai hartan, herri txikiko maisua izanik ere, alkatea baino handiagoa zen, tokiko prestijio eta ahalgoaren aldetik, zeren garai hartan alkateek doi-doi zekiten "irakurten eta ezkribatzen". Horregatik, edo maisua edo apaiza izaten zen herriko etxeko idazkaria, erran nahi baitzen, idazkariaren eskutik eta aholkutik iragan behar zirela herriko arazo guztiak, eta beronek ahalgo handia ematen zion maisuari. Esan ahal da idazkaria herriko lehen pertsona zela garai hartako tokiko politikan eta adiministratzioan. Bertsoaren osagileak, orduko testuingurua orainaldira ekarraraziz, herri koxkor bateko idazkari-tzatik hiriburu handi bateko alkate-ordetzara heldu dela dio. Biziki gora joan dela, hots. Eta hala izanik ere, orain badu beste bat gainetik, lehen agitzen ez zitzaiona. Beraz, gradoz altxaturik ere, ahalgoz murrizturik dabil. Alkate-ordeak, bertsoaren itzulpena jakitean, barre handiak egin zituen.

VII ALTZÜRÜKÜ HERRIAN

Agur Altzüküko herri famatia (1)
Bazter güzietan beitz'estimatia (2)
Dantzaiekin (3) handi beita (4) batzarria (5)
Goxoki iganen dügü egüñaldia

Agur Altzükü eta agur Zübüükote (5')
Etxe hau ümen da orotan haitia (6)

Edaria beitzüü (7) merke merkia (8)
Bena guri hobe dohainik üztia (9)

Agur eta goraintzi Gamou eta Etxeko (10)
Egün heben gira zien inganio (11)
Arrabotü (12) berri bat düzie aizoko (13)
Eta eliza aldiz zien zaintzeko (14)

Agur Altzüküko dantzari ohiak
Zien denboran zinden (15) gustian hobenak (16)
Geroztik beitzüzie ezari gaztiak (17)
Bertan ikhusiko tügü (18) heben Maskadak (19)

Herri huntan ... eüskaldiün üsaintxak (19')
Franko üsü ere dira barrikadak (20)
Ardu xuri gorriak biak haitiak
Behar ez bekan (21) dira holako egünak

Agur Altzükü eta agur Barriketa (22)
Huna heltü gira (23) untsa hatsantia (24)
Patar hau (25) guretako beitzen gaixtua (26)
Pharkatüko deiziegü (27) ükheitez ardua (28)

Agur Altzükütarrak ta agur Altzükü
Aspaldixkan zidie (29) heben gure haidü (30)
Gu errezebitzeko astelehen haitatü (31)
Phausatzeko asteartia behar hartü (32)

Agur Altzükü eta Bordazarria (33)
Muskildin beitzüzie ziek etxaltia (34)
Gogo hunez gira hunat heltiak (35)
Eta ez gira orano gü phartitiak (36)

(1) **herri famatia**, herri famatüa

(2) **beit´estimatia**, beita estimatia, baita (bait da) estimatüa. Doinuari behar bezala eusteko halako kontrakzioa dagi koplakariak.

(3) **Dantzaiekin**, Dantzariekin.

(4) **beita**, baita, bait da.

(5) **batzarria**, batzarrea, ongi-etorria.

(5') **Zübükote**, Altzüküko etxe baten izena, ostatua baita. Kopla bera kantatu zuten bai Urdiñarbe eta bai Larrañe herrietan ostatuen izenak aldatuak.

(6) **haitia**, haitüa, bizkorra

(7) **beitzüü**, baitüzü, bait düzü.

(8) **merke merkia**, merke-merkea.

(9) **üztia**, üztea, lagatzea.

(10) **Gamou eta Etxeko**, altzüküko bi etxe, alkarrekin kokatu baitute barrikada bat.

(11) **zien engainio**, züen engainio.

(12) **Arrabotü**, frontoi, pilota-leku.

(13) **düzie aizoko**, düzüe aizoko: züen etxeen ondoan düzue pilota-leku berri bat, hots.

(14) **zien zaintzeko**, züen zaintzeko, zuek babesteko. Kopla honetan geografian elkarren ondoan dagoenarekin jokutzen da, mezu berri bat jendaurreratzeko.

(15) **Zien denboran zinden**, züen denboran zindeen, züen garaian zineten.

(16) **gustian hobenak**, gustüan hoberenak

(17) **Geroztik beitzüzie ezari gaztiak**, Geroztik baitüzüie ezarri gazteak.

(18) (19) **Bertan ikhusiko tügü heben Maskadak**, Bertan ikusiko düttügü heben Maskaradak, Laster ikusiko ditugu hemen Maskaradak. Altzürükü herriak dantzari onak dituenaren ospe handia izan du betidanik. Era berean, sarri plantatzen dira Maskaradak Altzürükün. Normalki, aitek erakusten diete beren semei dantza, hau da, etxeetan ikasten da, zaharrek gazteei ezaguera iraganarazita. Irudi sozial hauetan oinarriturik kopla egiten da.

(19') **üsaintxak**, ohidurak, tradizioak. Zubereraz '-txa' atzizkiak 'multzo', 'talde' indikatzen du. Euskal Grafia Batua 'tza' da. 'Laborantxa' berba beste adibide bat dugu.

(20) **Franko üsü dira ere barrikadak**, dantzarekiko eta Maskaradekiko zaletasun handia dago-eta, kanpotik Maskaradak datozenean etxe anitzetan barrikadak ipintzen dira.

(21) **bekan**, gutxitan, bakan.

(22) **Barriketa**, Altzüküko kartiel bat, aldapan gora dagoena.

(23) **Huna heltü gira**, Hona heltü gira, hona heldu gara.

(24) **untsa hatsantia**, ontsa hatsantüa, ederki arnasestuka. Zubereraz: hatsa = arnasa; eta hantü = haizatu.

(25) **Patar hau**, aldapa hau.

(26) **guretako beitzen gaixtua**, guretako baitzen (bait zen) gaistoa, gureztat baitzen (bait zen) txarra.

(27) **Pharkatüko dereiziegü**, Parkatüko dereiziegü, Parkatüko deiziegü, Parkatuko dizuegu.

(28) **ükheitez ardua**, ükaitez ardoa, ukanez ardoa.

(29) **Aspaldixkan zidie**, aspaldixetik zidee, aspaldion zarete (zaudete).

(30) **heben gure haidü**, heben gure haidürü, hemen gure zain.

(31) **astelehen haitatü**, astelehen haütatü. Aspaldi honetatik Maskaradak igandeetan ospatzen dira. Muskildiko Maskaradek ez zuten inolako salbuespenik, kasualitate batengatik ezik. Hau da, programazioaren arauera Altzürüküra joateko tenorea ailegatu zenean -igande batean, hain zuzen ere- oso eguraldi txarra egin zuelako suspenditu zuten emankizuna ... Altzürükün. Zeren eta muskildiarrek, autobusetan hegoaldeko jende asko etorria zela ikusita, deusen gabe abia ez zitezen, Muskildiko Chistera ostatuan Maskarada inprobisatu zuten arratsaldean. Hala ere, Altzükü herria behar bezala bisitatuko zutela agindu zuten maskaradakaiek. Eta halaxe egin zuten Astelehena Pazkoan.

(32) **Phausatzeko asteartia behar hartü**, Pausatzeko asteartea behar hartü, atsedena aurkitzeko asteartea jai hartu behar. Zuberoan eta Iparraldeko herri askotan, astelehena jai izaten da, alegia, komertzioek, tabernek, bankoek eta denda anitzek ez dituzten beren ateak zabaltzen. Hau dela eta, igandean besta luzea egiten bada, astelehena pausu da. Maskarada hura astelehenean agiturik, pausatzeko aukera bihar-munean topatzea gaitz zen.

(33) **Bordazarria**, Altzüküko etxe bat.

(34) **Muskildin beützie ziek etxaltia**, Muskildin baitüzie züek etxaltea. Familia honek badute Muskildiko lurretan, errepidearen ondoan ostatu bat.

(35) **Gogo hunez gira hunat heltiak**, gogo honez gira honat heltüak, gogo onez gara hona heldu.

(37) **Eta ez gira orano gü phartitiak**, Eta ez gira oraino gü partitiak, Eta ez gara oraino gu abiatu. Hau da, erran gabe, heldu eta partitu artean dagoenaren eske ari dira: ardoa galdetzen zuten, hots.

VIII ALTZAI HERRIAN

Agur Zunhareta (1) eta agur lagunak (2)

irusik girade (3) zien ikhustiaz (4)

Heben izan beütira (5) Pastoral Maskaradak

Lüzaz bizi ditian (6) eüskaldün üsaintxak (7)

Agur Altzabeheü (8) eta agur lagünak

Kartiel huntan badiela (9) gizon handiak

Dantza erakaslia (10) eta jaun mera (11)

Bordalte hunekin Altzai aberatsa (12)

Goraintzi lagünak eta agur Altzai

Hola edatez (13) bertan (14) girateke (15) ernai

Herri otan (16) ez da ardu (17) hala nasai (18)

Hatik (19) esperantxa dügü egitia bazkai (20)

(1) **Zunharreta**, Altzaiako kartiel handi bat.

(2) **lagunak**, lagünak.

(3) **Irusik girade**, zoriontsu, kontent gara, pozik gaude.

(4) **zien ikhustiaz**, züen ikusteaz, zuek ikusteaz.

(5) **beütira**, baitira, bait dira.

(6) **Lüzaz bizi ditian**, lüzaz bizi ditean, luzaro bizi daitezen.

(7) **eüskaldün üsaintxak**, euskal ohiturak.

(8) **Altzabeheü**, Altzaiako kartiel handi bat.

(9) **Kartiel huntan badiela**, Kartiel honetan badirela

(10) **Dantza erakaslia**, Dantza erakaslea, Dantza irakaslea. Normalki, dantza errejenta erraten da.

(11) **jaun mera**, jaun auzapeza, alkate jauna. 'Jaun mera' erramoldea anitzetan agertzen da Maskaradetan, beti kantatzen baita haren aurrean. 'Mera' berba frantsesetik hartua da, eta eguneroko hizkera arruntean ere maiz erabiltzen da. Herri honetako auzapeza eta dantzaren maisua oso ezagunak dira baileran zehar.

(12) **Bordalte hunekin Altzai aberatsa**, Bordalte honekin Altzai aberatsa. Bordalte zera da: etxe bateko bordaren inguruko lurrak. Bordalte ona izatea etxearen aberastasunaren ezaugarri begibistakoa denez, bertsolaritzaren antza, bi irudi konparatuz mezua lortu nahi da: hau da, herriko alkatearen irudi publiko eta politiko ezagunaren eta dantza-maisuaren iharduera kulturalaren bitartez, herriko 'bordalte soziala' nabarmentzen da.

- (13) **Hola edatez**, hola edanez.
 (14) **bertan**. Zubereraz, 'bertan' eta 'arrunt' sinonimoak dira -kontestua zein den, noski-, eta 'segituan', 'berehala', 'laster' esan gura dute.
 (15) **girateke**, izanen gira.
 (16) **Herri otan**, Herri orotan.
 (17) **ez da ardu**, ez da ardo, ez dago ardoa.
 (18) **nasai**, ugari.
 (19) **Hatik**, Haatik.
 (20) **bazkai**, bazkari. Bazkaitan joan geia, bazkaitan joiteko asmoa.

IX LARRAIÑE HERRIAN

Agur eta goraintzi larraintar maitiak (1)
Zinez famatia (2) hebenko (3) jentiak (4)
Nahiz guri egin batzarre (5) handia
Ezari die (6) bandera ben'ez behar zena (7)

Agur eta goraintzi larraintar güziak
Huna heltü gira untsa hatsantia
Patar hori guretako beitzen gaixtua
Pharkatiiko deiziegü ükheitez ardua (8)

Agur eta goraintzi Karrikabürüa (9)
Etxe hau ümen da orotan haitia
Edaria beitzü merke merkia
Bena guri hobe dohainik üztia (10)

Agur eta goraintzi Despoiey ostantia (11)
Etxe hau ümen da zinez famatia
Handi beitzü egiten batzarria (12)
Pentsatzen dügü hun datekin (13) bazkaria

(1) **Agur eta goraintzi larraintar maitiak**, Agur eta goraintzi larraintar maiteak. Lehen barrikadan kantatzen den lehen koplaren hasiera klasikoa; erretorikoa izaten da formula hau.

- (2) **famatia**, famatüa.
 (3) **hebenko**, hemengo.

- (4) **jentiak**, jenteak, jendeak.
 (5) **batzarre**, harrera on, ondo-etorri.
 (6) **Ezari die**, ezarri düe, jarri dute.

(7) **bandera ben'ez behar zena**, bandera bena ez behar zena, bandera baina ez behar zena. Muskildiko Maskarada Larrañe herriko plazara heltzean, udal-etxe bakoitiko Frantziako bandera zintzilik zegoela ikustean etorri zitzaion koplakariari zererrana, ziria. Duela zenbait urte Larrañe herriko udal-etxea aldatu da zinegotziaz, eta batetan, tokiko politikaz, oraingo abertzale eta euskalzalegoa izanik. Frantses eta euskal banderak gai hartu eta Larrañeko azken urteotako politika jokora dator koplak hau. Ez dugu ahaztu behar Muskildin ere badagoela abertzalegoa dexente.

(8) Altzükün kantaturiko koplak dugu, oraingo aukeraren «larraindantua» dutela, Larrañe bortüan -mendian gora, alegia- baita, Altzüküko kartiel hura bezala.

(9) **Karrikabürüa**, Larrañe herriko plaza gaineko ostantu ezagunaren izena.

(10) Koplak hau bai Urdiñarben eta bai Altzükün ere kantatua izan zen. Horretarako, ostantuaren izenak aldatuak izan ziren, noski. Ez zuten bistaturiko herri guztietako ostantu denen aurrean koplak kantatu, ordea; nolabait ere, ostantu 'jatorretan' soilik abesturik izan zen.

(11) **Despoiey ostantia**, Despoiey ostantüa. Larrañeko sarreran dagoen Despoiey izeneko ostantua, hots.

(12) **Handi beitzü egiten batzarria**, Handi beitzü egiten (bait düzue) egiten batzarria, handia baituzue (bait duzue) ongi-etorria.

(13) **hun datekin**, hon datekeen, on izanen den.

HEGOALDEKO HERRI BATZUTAN**

Usurbilen

Agur Usurbil eta Hego Aldia (1)
Muskildiarrek deitzie (2) beren goraintziak
Anaiak beitzia (3) Xibero Gizpuzkoak
Hortakotz (4) eskentzen deiziegü (5) Maskaradak

'Motza' lagünari (6) gure goraintziak
Hau lehenago zen erdi xiberotarra

*orai hebentxe dügü jinik (7) herrila (8)
Orhiko txoria Orhila bezala (9)*

Beste Herrietan

*Xiberotik jinik huna (10) Muskildiarrek
Botzik zier deitziegü (11) gure goraintziak
Handi düzie (12) egin ongi etorria (13)
Markina (14) ta Muskildi anaiak beitira*

(1) **Agur Usurbil eta Hego Aldia**, Agur Usurbil eta Hegoaldea. Ohizko salutantza-formula, ingurugiro geografiko-sozial berria aipatzen duena.

(2) **Muskildiarrek deitzie**, Muskildiarrek deitzüee, Muskildiarrek dizkizue. Zubererazko aditzaren pluralegilea '-tz-' bat izaten da 'nori' agertzen den kasu askotan: deizüe/ deitzüee; zai/zaitzo; deio/deitzo...

(3) **beitira**, baitira, bait dira.

(4) **Hortakotz**, horretako. Zubereraz, Iparraldeko beste euskalki batzutan bezala, 'zerendako' galdekia 'zergatik'-aren ordekoa da. Beraz, 'honengatik'/ 'horrengatik'/ 'hargatik' eta 'honetako'/ 'horretako'/ 'hartako' erranberedunak dira. 'Hortakotz', ez da zuberera, baizik eta Behenafarroa, Nafarroa eta Lapurdiko forma. 'Hortakotz' esatean, 'hortako' beharrean, aurrean duten audientzia zuberotarra ez dela nabarmentzen dute: alegia, zuberotarra ez dela ikusentzulegoa eta berorren jakinean daudela agertzen dute. Bestela esanda, hitzak nola edo hala auke-ratzen ez direnez gero, Zubererak inguratzen duen eskualdeko identitate linguistiko apartekoaren jabetasun kolektiboa azaltzen du koplak honek.

(5) **eskentzen deitziegü Maskaradak**, eskentzen deitzüegü Maskaradak, eskeintzen dizkizuegu Maskaradak. Hau da, deizüegü/deitzüegü:dizugu/dizkizugu.

(6) **'Motza' lagünari**. 'Motza' Zuberoan errefuxiatu gisa bizi zen Usurbilgo lagun baten izengoitia da. Pertsona hau Usurbilgo etxera jadanik itzulita, Maskaradaren egunean muskildiarrek agurtzera azaldu zen, eta elkar ikustean, koplak ziriborratu zuen bertsegileak bere koadernoan, segituan txorrotx edo zorrotzari lagunarekin kantatzeko.


(7) (8) **Orai hebentxe dügü jinik herrila**, Orain hementxe dugu etorrita herrira. 'Herrira', 'etxera', 'mendira' eta holako norabidedunak zenbait suertez ager daitezke zubereraz: 'herrira', 'herrirat', 'herrila', 'herriala', 'herrialat'.

(9) **Orhiko txoria Orhila bezala**, Orhiko txoria Orila bezala, Orhiko txoria Orira bezala. Kantu zuberotar

batek Orira itzuli behar duen txoriari abesten dio. Irudi hau bildurik, eta 'Motzaren' bizitza ezagututa, istorio paralelo bi iradokiz osatu du koplak. Honetaz, poesia herrikoigintzaren funtsari heldu dio, atzekoz aurrera ibili den arren, zeren eta normalean, lehen-lehenik naturako irudia aurkeztuta gero, irudi beroni ondoratzen zaio kantagaia. Kasu honetan alderantziz jazo da.

(10) **jinik huna**, jinik hona, etorririk hona.

(11) **Botzik zier deitziegü**, Bihotzerik züer deitzüegü, Bihotzetik zuei dizkizuegu. Zubereraz '-tik' atzizkia '-rik' atzizkia dugu: etxetik/etxerik; Muskilditik/Muskildirik eta abar; horrela izanik, hobeto uler dezakegu amaierako kontrakzioa: hots, '-tzetrik'/'-tzik' kontrakzioa. Kontrakzio hau, berbaren hasierakoarena lez, doinuan behar bezala sartzeko eginda dago. Beste alde batetik, Zubereraz izen arrunt, izenorde eta izenlagunen datiboa, pluralean, '-er' da: honetaz, züer, haier, berer, lagünar, gazteer, etxe handier, eta abar.



(12) **Handi düzie**, Handi düzüe, Handia duzue.

(13) **ongi etorria**, ongi-etorria. Zubereraz 'hunki-jina' esaten bada ere, kopletan hainbeste agertzen den 'batzarrea' hitzaren itzulpena da. Kontestu berriaren aurrean, apur bat deszuberotartzen dute kopla, audientziari baitiote begirunez begiratu nahi.

(14) **Markina ta**, Markina eta. Hegoaldeko herriaren izena aldatzen zuten, non zeudenen arauera.



MUSKILDI HERRIAN**

Laurzi huntan (1) bada jente mota (2) franko
Zunbaitek erraiten diela (3) paregabeko
Muslari, oiñokari (3'), bestakariak (4) oro
Horiek Muskildi die (5) gora altxatüko

Errespetüz mintzatü behar dügü heben
Jente handia beita zietarik elkitzen (6)
Jaun mera hasi zaikü arrenküratzen (7)
Dagiin bozketan lista bat dila egimen (8)

Ehütsane huntan (9) buhame handixko (10)
Dantzari zunbait (11) ere famain hobetzeko (12)
Beharre (13) San Atoni (14) zien zaiñtzeko (15)
Bertan zidie (16) besteniz paganotüko (17)
Kartiel huna dela bethi Barretxia (18)
Bigarren barrikada ziek plantatia (19)
Ezinago hun beita zien batzarria (20)
Bena segür azkena oraiko bidajia (21)

Kantiniarsa, Gathia, Marexala (22)
Laborarisa bat (23) txipia bena bai hardita (24)
Andere bat ederra
Kartiel aberatsa segür Agrehia (25)

Karrika thiniari (26) goraintzi handi bat
Heben beita gure azken barrikada
Handi düzie ziek segür batzarria
Gaiza (27) normala hebenko beita jaun mera (28)

Egiin da heben gure azken barrikada (29)
Agian lüzaz iraiñen beitiü (30) Maxkaradak (31)
Lagiint ditzagün bethi ohidiira xaharrak (32)
Phastoral, Maxkarada t'Üskal Mintzajia (33)

Urthia jun hintzala Filipe maitia (34)
Egiin ezin ahantze (35) hire presentzia
Begietan diagü beti zamaltzain haitia (36)
Eta goguan (37) ere hire oritzapena (38)

Agur Muskildi eta Muskildi maitiak
Goxüiman (39) hasten heben beti Maskaradak
Bi urtetarik tügüla (40) herri huntan jeiak (41)
Agian lüzaz iañen (42) holako xediak (43)

Agur eta goraintzi kestuaren (44) aita
Entzüin diagü hintzala hürrüinetik jina (45)
.... aski goizik (46) beita barrikada
Orai edanen diagü hire osagarrila (47)

Agur eta goraintzi jaun mera nublia (48)
Llabürtzen ari zaizü denbora ederra
Martxo huntan dükegü (49) menturaz kanpua (50)
Txorrotx batek beitiü nahi zure lekia (51)

(1) **Laurzi huntan**, Laurzi honetan. Laurzi Muskildiko kartiel bat da.

(2) **jente mota franko**, jende moeta franko. Zuberroan 'suerte' hitza erraten da, 'mota' berbaren sinonimo gisa.

(3) **Zunbaitek erraiten diela**, Zunbaitek erraiten düela, Zenbaitek erraten dutela.

(3') **oiñokari**, onddokari.

(4) **bestakariak**, bestazaleak. Dominika Agergaraiaren koadernoan idatziriko 'bestakariak' hitzean bada-go marka bat, nik azpimarratze batez hemen irudikatu nahi dudana. Kaierreko traza horrekin nahi dio bere buruari gogorarazi kontrakzione bat egin behar dela hortxe bertan kopla kantatzerakoan.

(5) **Horiek Muskildi die**, Horiek Muskildi düe, Horiek Muskildi dute. Azpimarratzea dela eta, irakur arestiko oharra.

(6) **zietarik elkitzen**, züetarik elkitzen, züetarik idokitzen, zuetatik irteten. Ikus arestiko oharra.

(7) **Jaun mera hasi zaikü arrenküratzen**, alkate jauna hasi zaigu kexatzen.

(8) **Dagün bozketan lista bat dila eginen**, Dagün bozketan lista bat düala eginen, Heldu den bozketan zerrenda bat duela egingo. Kopla honetan aurki datozen herriko hauteskundeak atxakia harturik, 'jaun mera' esakera fosilizatuaz hierarkiaren kontzepzio batez dihardukigu koplak, 'jende handia' eta 'jende txipia' elkarretik bereiztuz. Hizkera arruntean ere, partikularzki laborariek 'jende handia' eta 'jende txipia' adierazmoldeak erabiltzen dituzte gizarte diferentziak modu orokorrean jakinarazteko. 'Handia' eta 'txikia', orduan, irudi sozial inportanteak dira nekazal gizartean.

(9) **Ehüsane huntan**, Ehüsane honetan. Ehusane Muskildiko kartiel bat da.

(10) **buhame handixko**, buhame handisko, ijito handitxo. Buhameek Maskaradetako talde beregisako bat burutzen dute. Muskildiko Maskaradan kartiel honetako bizizale batzuk 'buhameen' taldean dihardute.

(11) **Dantzari zunbait ere**, Dantzari zonbait ere, Dantzari zenbait ere. Ehüsane jendea eta Masakarada elkarrarazi nahi dira kopla honetan.

(12) **famain hobetzeko**, famaren hobetzeko. 'Fama'en hobetzeko/fama'in hobetzeko. Zuberoako herri kulturaren funtsari begira, dantzariak dakarte herri batera izen edo 'omen' ona, eta delako irudia hartzen du koplakariak maileguz.

(13) **(14) Beharre San Atoni**, Behar'e San Antoni, Behar ere San Antoni. San Antoni erraten da normalki. San Antoni zera da, Ehusane gainean dagoen ermita bat. Ermita hau Ahaide Nagusien borrokak amaitutzat uzteko eraiki arazi zuen Nafarroako erregeak XIV mendean, eta urtean zehar hiru aldiz joaten dira muskildiarak, beste zuberotarrak eta behenafartarrak bezalaxe, meza entzutera.

(15) **zien zaiñtzeko**, züen zaintzeko, zuek babesteko.

(16) **Bertan zidie**, Bertan zidee, Bertan ziree, Agudo zarete.

(17) **besteniz paganotüko**, besteñez paganotuko, bestela pagano bihurtuko.

(18) **Kartiel huna dela bethi Barretxia**, Kartiel hona dela beti Barretxea. Auzo ona dela beti Barretxea. Muskildiko Barretxea etxe-multzo bat da. Muskildiko lehenengo karrika eta plaza zaharra hemen omen ziren, Muskildiko Itxauspe baserrian gordetzen den 1768. urtean sinaturiko dokumentu batetik inferitu ahal dugunez.

(19) **ziek plantatia**, züek plantatüa.

(20) **Ezinago hun beita zien batzarria**, Ezinago hon baita (bait da) züen batzarrea.

(21) **oraiko bidajia**, oraingo bidaia. Kantatu tenorean kontrakzio bat egin behar dela markatzeko dakar azpimarratzea.

(22) **Kantiniersa, Gathia, Marexala**, Kantiniersa, Gatüa, Marexala. Hauek Maskaradaren talde gorriaren jolariak dira. Goiko beste kopla batean lez, kopla honetan ere, kartieleko lagunak eta Maskaradaren jendea elkarrarazten dira.

(23) **Laborarisa bat**. '-sa' atzizkiak emakumezkotasuna indikatzen du.

(24) **hardita**, azkarra, jauzkorra.

(25) **Agrehia**. Muskildiko auzoa edo etxe-multzoa.

(26) **Karrika thiniari**, Karrika tiniari, herrigune aldapatsuari. 'Karrika' eta 'kalea' berbek ez dira beti sinonimoak. 'Tiniak', zuberoraz, 'mendigaina', 'mendipunta', 'gailurra' erran nahi du, eta Muskildiko herrigunea aldapan gora da.


(27) **Gaiza normala**, gaüza normala.

(28) **hebenko beita jaun mera**, hebenko baita (bait da) jaun auzapeza, hemengoa baita (bait da) herriko alkate jauna.

(29) **gure azken barrikada**. Goizeko barrikadak eguerdian bukatzean ohi dira, normalki herriko plazan eta zinegotsien aintzinean. 'Azken barrikadak' nahi du hemen esan 1987. eta 1988. urteetan zehar

Auzo Egin hebenko beita jaun mera
 Kartiel huna dela bethi Barretxia
 Hütse egile tebe, ande babetana
 Ta auzaren guretik eukü zigara
 Ete huntatik elkitzen da tebetana
 Nekazari eta lehenen eta jekentaria
 Ta astelheketen lapintze bap
 Kartiel huntatik elkitzen da tebetana
 Sone egiten eta funtsari khontan
 Mezentzen bethi gure eukü huntatik
 Nekazari atzamatzen laneko denbata

gaindituriko barrikadetan azken-azkena zela ordukoa. Hau da, XX mendean Muskildiko gazteriak egin duen lehen Maskaradaren azken barrikada edo auzo-salutantza.



(30) **lüzaz iraiñen**, lüzaz iräinen, luze iraungo.

(31) **Maxkaradak**, Maskaradak.

(32) **Lagünt ditzagün bethi ohidüra zaharrak**, Lagünt ditzagün beti ohidüra zaharrak, Lagun ditzagun beti ohitura zaharrak. Zuberoeraz aditz baten amaiera '-ntü' bada, erroa '-nt' du beti.

(33) **Phastoral, Maxkarada t'Üskal Mintzajia**, Pastoral, Maskarada eta Eüskal Mintzajia. Zubereraz eüskaldun, eüskara eta bezalako hitzek hasierako 'e-' hori galtzen dute ahozko hizkuntzan: üskaldun, üska(r)a eta abar. Era berean, batutzat onartu den '-aia' bokal-taldea '-ajia' dugu Zuberoan: bidajia, mintzajia. Beste alde batetik, bertso honetan argi eta garbi azaltzen da badela nolabaiteko komunztadura hizkuntzaren eta antzerki herrikoiaeren artean, hau da, badela amankomuneko identitate bat.

(34) **Urthia jun hintzala Filipe maitia**, Urtea joan hintzela Filipe maitea. Kopla hau biziki adierazkor da, zeren Muskildin agitutako zorigaiztoko gertakizun bat gogoratu eta gainditu nahi bait du.

(35) **ahantze**, zubereraz, normalki, ahatze erraten da.

(36) **Begietan diagü beti zamalzain haitia**, Begietan diagü beti zamalzain haitia. Bertset honetan 'beti'

izkribatu du, usu datorren 'bethi'aren orde. Filipe Muskildiko gazte bat da, 1985. urteko Pastoralean ari izateko dantzari bezala prestatu zena. Herrian Maskarada egitea deliberatu zenean, dantzan trebatzen ihardun zuen, herriko dantzariak hobenetako bat izatera iristeraino. 1987. urteko Maskaradan 'zamalzain'aren arropak eta kadrea hartuta erautsi zuen. Gogoratu behar dugu 'zamalzain' aritzeko abilezia eta iaotasun berezia behar dela zangoetan eta gorputz-mugimenduan. Egun batean lanean ziharduela, ezbeharreko kolpe tzar batek eraman zuen familia eta langunengandik. Zuberoan gero eta gazte gutxiago bizi da, eta gelditzen diren gutxiago horretako batek bizia galtzen duenean, haren falta denetan antzematen da. Filipek pertsonaia mitiko, sakratu, enigmatiko bat errepresentatzen zuen bere dantzaren bitartez. Filiperen joanaldi fisikoak bertan behera astindu zituen familia, gazteria eta herria, eta gazteriaren eta herriaren erantzuna ezinago berezia izan zen: herriko dantzariak dantzari-jantziak soinean beztiturik gorpua eraman zuten elizara, txirularen soinuaz lagunduta, eta alkateak hiru kopla osatu zituen elizan hiru adiskidek bana-ka kantatzeko. 1988. urteko azken barrikadan, plazakoan, berriro ere hiztatu zen Muskildiko gogoan zen sentimendua, txorrotzek kantatu zuten kopla honen bitartez.

(37) **goguan**, gogoan.

(38) **oritzapena**, oroitzapena.

(39) **Goxüman**, Garizuman. Maskaradak ihauterietako jaia eta ospakizuna izan ohi dira. 1988. urte honetan errepresentatu den Maskarada-emanikizun bakarra udan izan da, Muskildin.

(40) **Bi urtetarik tügüla**, Bi urtetarik dütügüla.

(41) **herri huntan jeiak**, herri honetan jaiak.

(42) **iañen**, iräinen, iraungo.

(43) **xediak**, xedeak.

(44) **kestuaren**, kerestuaren, kistuaren. Hizkiz eta mintzoz hiru era hauetara ager daiteke Maskaradan den jokolariaren izena.

(45) **jina**, etorria.

(46) **aski goizik**, aski goizerik, nahiko goizetik.

(47) **hire osagarrila**, hire osagarrira, hire osasunera.


(48) **jaun mera nublia**, jaun mera noblea. Forma erretorikoa.

(49) **dükegü**, ukanen dugu.

(50) **kanpua**, kanpoa.

(51) **zure lekia**, zure lekia. Txorrotzak, zorrotzak edo zorrotzariak dira Maskaradetan. Muskildiko

Maskaradan Dominika Agergaraik eta Eñaut Uhaltek hartu dute kargua. Hala ere, Eñautek ezin izan zuen igande guztietan aritu, eta haren tokia Alain Mugordoyk betetzen zuen. Kopla honetan Dominka eta Eñaut ari dira kantuan, Eñaut herriko hauteskunderako listan dagoela. Txorrotzek alkatearen aurrean abesten dute, udaletxeko bozkak aurki direlarik. Iku-sentzulego osoak, auzapezak barne, irri egin zuen.



LEHEN OHARREAN AIPATURIKO EREFERENTZIAK

- (2005) The folk arts of Maskarada performance. En *Vocing the moment: improvised oral poetry and Basque tradition*, Samuel G. Armistead y Joseba Zulaika (eds.), Center for Basque Studies, University of Reno Nevada, Reno.
- (2003) Los teatros del camino de Santiago: teatro popular, desarrollo comunitario e identidad social. [Verónica Intxausperekin] In *Zainak: Cuadernos de Sección de Etnografía y Antropología* nº 22, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.
- (2001/2002) Pastoralaren gūdūka eta jeia. In *Anuario de Eusko-Folklore* nº 43, Fundación José Miguel de Barandiarán, Casa Sara, Ataun.
- (2001) Carnival performance, gender and ritual heterodoxy, páginas 293-314.. In *Jentilbaratza: Cuadernos de Sección de Folklore* nº7, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.
- (1999) Zuberoako Maskaradak izeneko herri antzerkiaren ahozko literatura. In *Euskera, Órgano Oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia* 1999 nº1 volumen 44, Bilbao.
- (1998) De los límites y las transgresiones rituales: fiestas de carnaval, danza tradicional e identidad social. En *Fronteras y puentes culturales: danza tradicional e identidad social*, Kepa Fdez. de Larrinoa (ed.), Editorial Pamiela, Iruñea.
- (1998) Apuntes metodológicos e invitación al estudio del folclore, la danza y la cultura popular. En *Invitación al estudio de la danza tradicional en el País Vasco*, Kepa Fdez. de Larrinoa (ed.), Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz.
- (1997) Anthropological trends in the study of folk theater in Soule Valley, páginas 27-40. In *Jentilbaratza: Cuadernos de Sección de Folklore* nº6, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.

- (1994/1996) 'Obetaka': la organización de la fiesta patronal en un pueblo suletino (notas y reflexiones etnográficas), páginas 49-54. In *Kobie, antropología cultural* n°7, Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao. ISSN 0214-7971.
- (1997) *Mujer, ritual y fiesta: género, antropología y teatro de carnaval en la sociedad rural pirenaica*, Kepa Fdez. de Larrinoa, Ed. Pamiela, Iruñea.
- (1996) Teatro tradicional y dinámica social en el mundo rural. En *Intervención y diseños rurales: campesinos, bienestar social y antropología*, Kepa Fdez. de Larrinoa (ed.), Escuela Universitaria de Trabajo Social, U.P.V., Gasteiz.
- (1994) Jaien eta ekoizpen kulturalaren antropologiarantza: Zuberoako herri bateko bestez zenbait ohar, 119-138. In *Cuadernos de Sección de Etnografía y Antropología* n°11, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.
- (1993) *Nekazal gizartea eta antzerki herrikoia Pirinioetako haran batean*, In *cuadernos de Sección Antropología-Etnografía*, n.º 9, Kepa Fdez. de Larrinoa, Eusko-Ikaskuntza, Donostia.
- (1993) Un aspect de la Mascarade: l'invitation au repas. In *La Mascarade: Carnaval Populaire de Soule*, Les Cahiers de Sü Azia, 2. zenbakia Otsailean, Maule.

